

EUSKADI GARA. MUNDIALAK GARA!

Aberri Eguna 2025

Apirilak 20. Bilbao. Plaza Barria. 11:30



***Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto***

Olatz Urizar, EGikidea

ABERRI EGUNA 2025

Aberri egun on, Euskadi!!

"Euzkaldunak: Aberri Egunean, gora bihotzak!" edo altxa gaitezen.

"Vascos, vascas: ¡en el Día de la Patria, alzaos como bien decía nuestro lehendakari Aguirre.

Gaur, gure arbasoen oihartzunak ekartzen ditugu gogora, baina baita bihotz taupadak ere: hemen gaude, zutik, harro, eta bizi-bizi. Gure Euskadi ez da iraganeko oroitzapen bat. Aberria gu gara, gaur hemen elkartuta gaudenok, eta etorkizuna eraikitzeko prest gauden belaunaldiak.

1932an, gure arbasoek ospatu zuten lehenengo Aberri Eguna, garai latzetan, baina bihotzak eta buruak libre nahi zituzten. Haiek sinetsi zuten herri baten indarrean: hizkuntzan, kulturean, batasunean eta askatasunean. Eta haien ametsa, gaur, gure konpromisoa bihurtu da.

Nuestro pueblo está formado por siete territorios, y siete corazones laten al unísono: somos uno. Lapurdi, Baja Navarra, Zuberoa, Navarra, Bizkaia, Gipuzkoa y Álava: nombres distintos, pero un mismo latido. Ninguna frontera administrativa puede dividir nuestro sentimiento, nuestra lengua ni nuestras raíces. ¡Somos un solo pueblo y estamos aquí para conseguir su libertad plena!

Euskara gure herriaren arima da. Hizkuntza honetan mintzatzen gara, gure ametsak defendatzeko. Hizkuntza honetan negar egiten dugu, eta hizkuntza honetan maite dugu. Gaur eta hemen, zin egiten diogu gure buruari: ez da galduko, ez da isilduko, ezta zapalduko ere. Euskara etorkizunerako giltza izango da, eta giltza horri eutsiko diogu.

Aberri Eguna ez da iraganeko nostalgia; gaur eguneko borroka da. Lurraren defentsa, emakumeen eskubideen aldeko borroka, euskara, kultura biziaraztea, gazteen etorkizuna bermatzea... Horiek gure aberriaren eguneroko erronkak dira. Eta erronka horien aurrean, herri oso baten konpromisoa behar da: instituzioetatik, belaunaldi berrietatik gure aiton-amonetara.

No solamente es una mirada al pasado. Hoy, las nuevas generaciones estamos aquí para renovar el compromiso con nuestra patria: seguiremos luchando por nuestra identidad abertzale. Este es nuestro tiempo. Desde EGI, alzamos la voz con orgullo y responsabilidad, porqu sabemos que nuestro pueblo quiere caminar con voz propia, en su lengua, siendo dueño de su destino

Beraz, gaur, Aberri Egunean, harrotasunez eta indarrez esan dezagun:

Gora gure Aberria! Gora Euzko Alderdi Jertzalea! Gora Euskadi askatuta!